

1. Hirigintzako Plangintzari buruzko Arautegiak (HPA) haurrentzako jolas eta atsedeen eremuetarako zehazten dituen azalerak justifikatu behar dira; horietan 12 metroko diametroa duen biribil bat egin ahal izango da.

2. Ibilgailuetarako ibiak formalizatzean gutxienez 1,50 metroko zabalera duen espaloia utzi behar da eta luzetarako eta zeharkako maldak gehienez ehuneko 6koa eta ehuneko 2koa izango dira hurrenez hurren. Ildo horretan, zerbitzuen azpiegiturarako (kasu honetan gas biltegia) gordetako espaziora ibilgailuak sartzeko aukera kontuan hartuko da, hura mantentzeko lanak egin behar direnerako; II. eranskineko 3.5. artikuluan ibietarako ezarritako zehaztapenak beteko dira.

3. Hornidura sarean eskuragarri dagoen emaria adieraziko da (HPAren 53.4 artikulua).

4. Hirigintzako kudeaketaren plano bat jaso behar da. Plano horrek Lantarongo indarretako arau subsidiarioak bete behar ditu eta grafikoen bidez erakutsiko ditu plan partzial honen memoriako 7 eta 8 idatz zatietan ezarritako zehaztapenak.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du; beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan eta horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 11.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4569

352/2012 FORU AGINDUA, uztailaren 11koa. Honen bidez, baietsi egiten da Iruña Okako Udalak egindako eskaera eta behin betiko onartzen da Langraiz Okako (Iruña Oka) bizitegitarako SAU-N2 sektoreko 1-3078 lurzatian, non interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak egin nahi baitira, gauzatzeko den plan bereziaren espedientea.

I.- AURREKARIAK

Bakarra.- Iruña Okako Udalak errekerimendua aurkeztu du, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2012ko ekainaren 18an sarturiko idazki baten bidez eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 44. artikuluan xedaturikoaren babesean, maiatzaren 25eko 267/2012 Foru Aginduaren aurka, hura baliogabetzeko eskatuz. Foru agindu horren bidez, ukatu egiten da Langraiz Okako bizitegitarako SAU-N2 sektoreko 1-3078 lurzatian, non interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak egin nahi baitira, gauzatzeko den plan bereziaren espedientearen behin betiko onarpena.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Iruña Okako Udalak bere idazkian adierazi duenez, huts bat egin da hirigintza araudia aplikatzean plan berezia behin betiko onartzea ezesten duen ebazpenean.

Bere iritziz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 35.3 artikuluan xedatzen duena oinarri hartuz, hirigintza eraikigarritasuna da irabazteko asmoa duten erabilera eta jardueri dagokien eraikigarritasun fisikoa, hura kanpo dagoelarik eremuan lehendik dauden edo, aurreikuspenen arabera, gero egongo diren hornidura publikoetatik.

Kontuan izanda aldundiak onartu beharreko plan bereziak hornidura publikorako xedea duen lurzati baten eraikigarritasun fisikoa

1. Justificar las superficies que el Reglamento de Planeamiento Urbanístico (RPU) define para áreas de juego y recreo de niños en las que podrá inscribirse un círculo de 12 metros de diámetro.

2. Los vados para vehículos se formalizarán de tal manera que quede un ancho de acera mínimo de 1,50 metros con las pendientes longitudinal y transversal máximas del 6 por ciento y 2 por ciento respectivamente. En este sentido, se tendrá en cuenta la posibilidad de acceso de vehículos al espacio reservado a infraestructuras de servicios (en este caso, depósito de gas) para labores de mantenimiento del mismo y que cumplirán con las determinaciones establecidas para vados en artículo 3.5 del anejo II.

3. En la red de abastecimiento se indicará el caudal disponible (artículo 53.4 del RPU).

4. Incluir un plano de gestión urbanística conforme a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón vigentes, reflejando gráficamente las determinaciones establecidas en los apartados 7 y 8 de la memoria de este Plan Parcial.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 11 de julio de 2012.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4569

ORDEN FORAL 352/2012, de 11 de julio, de estimación del requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca y aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de la parcela 1-3078, destinada a centros docentes y servicios de interés público y social, del Sector Residencial SAU-N2 de Nanclares de la Oca, municipio de Iruña de Oca.

I.- ANTECEDENTES

Único.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 18 de junio de 2012, el Ayuntamiento de Iruña de Oca formula, al amparo de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, requerimiento contra la Orden Foral nº 267/2012, de 25 de mayo, por la que se deniega la aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de la parcela 1-3078, destinada a centros docentes y servicios de interés público y social del Sector residencial SAU-N2 de Nanclares de la Oca, solicitando su anulación.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El Ayuntamiento de Iruña de Oca manifiesta en su escrito que se ha producido un error de aplicación de la normativa urbanística en la resolución denegatoria de la aprobación definitiva del Plan Especial.

Entiende que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo la edificabilidad urbanística es la edificabilidad física correspondiente a los usos y actividades de carácter lucrativo, quedando excluida la edificabilidad física de las dotaciones públicas existentes o previstas para el ámbito.

Dado que el Plan Especial sometido a la aprobación de la Diputación solamente modifica la edificabilidad física de una parcela

baino ez duela aldarazten, ez geundeke hirigintza antolamenduaren egiturazko aldaketa baten aurrean, ezpada 2/2006 Legeak 59.2.c).6) artikuluan araututako plan berezi baten aurrean.

Bigarrena.- 2/2006 Legearen 35. artikulua (Lurzoruen eraikigarritasuna), 53. artikulua (Hirigintzaren egiturazko antolamendua) eta 59. artikulua (Plan motak) batera aztertuta zera ondorioztatzen da, hornidura publikoak antolatzen dituzten plan berezien eraikigarritasuna ezin da ulertu, inola ere, hirigintza eraikigarritasun moduan, 35.3 artikulua berariaz uzten du-eta kontzeptu horretatik kanpo antolamendu eremu horretan lehendik dauden edo, aurreikuspenen arabera, gero egongo diren hornidura publikoen eraikigarritasun fisikoa.

Egia da SAU-N2 eremuak onartuta dituela bere hirigintza zehaztasunak, baina hori ez da oztopo legeak arautzen dituen tresnak erabili ahal izateko, xeda baita modu eraginkorrean kudeatzea hirigintza. Horiek horrela, udalak argudiatzen duenez, legeak ez du inolako eragozpenik jartzen eraikigarritasun fisikoaren parametroa alda dadin hornidura publiko baten antolamendurako plan bereziaren babesean. Kontuan izan behar da ez gagozkiola irabazteko asmoa duen erabilera baten antolamenduari, ezpada premia publikoari, eta planaren sustatzaile den administrazioa da lehenengo interesduna bere eraikuntza proiektuak benetako premietara egokitzeko, hain zuzen ere, eraikuntzak xede duen helburutik eratorritako betenetako premietara.

Horregatik bidezkoa baiestea Iruña Okako Udalak egindako eskaera, eta, ondorioz, behin betiko onartzea plan berezia.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Iruña Okako Udalak maiatzaren 25eko 267/2012 Foru Aginduaren aurka egindako eskaera baiestea. Foru agindu horren bidez ukatu egiten da 1-3078 lurzatiaren plan berezia behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Behin betiko onartzea Langraiz Okako bizitegitarako SAU-N2 sektoreko 1-3078 lurzatiaren, non interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak egin nahi baitira, gauzatzeko den plan berezia.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta horretarako bi hileko epealdia egongo da ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 11.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

PLAN BEREZIAK ERAGITEN DIEN SAU-N2 SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN ARTIKULUAK

6. artikulua.- Ekipamendu lurzattia

1. ERABILERA: interes publiko eta sozialeko irakaskuntza zentroak eta zerbitzuak.

2. ALTUERA: b. solairua + 1 (8 m hegalaria).

3. OKUPAZIOA: lurzatiaren oinaren ehuneko 51 okupatu daiteke gehienez ere.

4. ERAIKIGARRITASUNA: lurzatiaren gehienezko eraikigarritasuna 0,50 m²c/m²s izango da.

Eraikinaren itxituretako kanpoko lerroek zehazturiko azalera hartuko da kontuan, beheko solairuan eta lehenengoan eraikitako azalera gisa.

Sotoa ez da kontuan hartzen, baldin eta sabaiaren forjatuaren goialdea ez badago metro 1 haratago espaloien edo lurzoruen sestratik.

Estalkipeko solairua 1,50 m-ko altuera libretik aurrera kontuan hartzen da, salbu eta ez badu erabilerrako aukerarik edo eraikinaren instalaziotarako erabiltzeko bada.

5. MUGEKIKO TARTEA: ez da aurrekusi atzeragunerik bigarren mailako bideekiko eta mugakide diren gainerako lurzatiekiko; edonola ere, 24 m-ko aldea egongo da trenbidearen kanpoaldeko erraila-

destinada a dotación pública no estaríamos ante un supuesto de modificación de la ordenación urbanística estructural, sino ante un Plan Especial regulado en el artículo 59.2.c).6) de la Ley 2/2006.

Segundo.- Del análisis conjunto de los artículos 35 (edificabilidad de los suelos) 53 (ordenación urbanística estructural) y 59 (clases de planes) de la Ley 2/2006, se deduce que la edificabilidad de los planes especiales que ordenan dotaciones públicas en ningún caso puede ser entendida como edificabilidad urbanística, puesto que el artículo 35.3 excluye expresamente de dicho concepto la edificabilidad física de las dotaciones públicas existentes o previstas para dicho ámbito de ordenación.

Es cierto que el ámbito SAU-N2 tiene aprobadas sus determinaciones urbanísticas, pero ello no obsta para que puedan utilizarse los instrumentos que regula la ley en aras de una eficaz gestión urbanística. En este sentido, tal y como argumenta el ayuntamiento, no existe obstáculo legal alguno para que el parámetro de edificabilidad física pueda ser modificado al amparo de un plan especial dirigido a ordenar una dotación pública. Hay que tener en cuenta que no estamos ante la ordenación de un uso lucrativo, sino ante una necesidad pública, siendo la administración promotora del plan la primera interesada en adecuar sus proyectos constructivos a las necesidades reales que se derivan del fin al que se destina la edificación.

Es por ello que procede la estimación del requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca y, consecuentemente, la aprobación definitiva del Plan Especial.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Estimar el requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca contra la Orden Foral 267/2012, de 25 de mayo, por la que se denegó la aprobación definitiva del Plan Especial de la parcela 1-3078.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de la parcela 1-3078 destinada a Centros Docentes y Servicios de Interés Público y Social del Sector Residencial SAU-N2 de Nanclares de la Oca.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 11 de julio de 2012.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

ARTICULOS DEL PLAN PARCIAL SAU-N2 AFECTADOS POR EL PLAN ESPECIAL

Art. 6.- Parcela de Equipamiento

1. USO: Centros Docentes y Servicios de Interés Público y Social.

2. ALTURA: P. Baja + 1 (8m. al alero).

3. OCUPACIÓN: La ocupación máxima en planta de la parcela es del 51 por ciento.

4. EDIFICABILIDAD: La edificabilidad máxima será de 0,50m²c/m²s de parcela.

Computa como superficie construida en planta baja y primera la definida por las líneas exteriores de los cerramientos de la edificación.

El sótano no computa siempre y cuando la cara superior del forjado del techo no exceda de 1m sobre la rasante de la acera o terreno.

La entrecubierta computa a partir de una altura libre de 1,50m, salvo que carezca de posibilidades de uso o esté destinada a instalaciones del edificio.

5. SEPARACIÓN A LINDEROS: A vial secundario y resto de parcelas colindantes no se contemplan retranqueos, si bien la separación será de 24mt respecto del carril exterior de la Línea Ferroviaria (*) y de

rekiko (*), eta 14,37 m-koa, berriz, La Torca erreka bideratzeko lerroaren puntu hurbilenarekiko. Hori guztia B4 planoak dioenaren arabera.

(*) 24 m-ko alde hori alda egin daiteke, trenbidearen jabe den eta hura kudeatzen duen enpresak (ADIF) berariazko baimena eman ondoren.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4571

287/2012 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Artziniegako eta Erretes Tudelako Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari buruzko espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Artziniegako Udalak 2010eko ekainaren 3an hasierako onarpena ematea erabaki zuen Artziniegako eta Erretes Tudelako Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren espedienteari, baita hura jendaurrean jartzea ere hilabete, eta horretarako iragarki bana jarri zen 2010eko ekainaren 11ko ALHAOn (64 zk.), DEIA egunkariaren 2010eko ekainaren 12ko alean, EL CORREO egunkariaren 2010eko ekainaren 13ko alean, eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- 2010eko ekainaren 25ean, eskatu beharreko txostena eskatu zion udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, eta 2010eko urriaren 13an egin zuen.

Hirugarrena.- Jendaurreko informazio aldian, bost alegazio aurkeztu ziren, eta udalbatzak, 2011ko maiatzaren 5eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari.

Laugarrena.-Espedientea aldundira bidali ondoren, Ingurumen eta Hirigintza Saila konturatu zen ez zegoela osorik eduki materialaren aldetik eta udalarekin jarri zen harremanetan, 2011ko urriaren 3an, akats hori zuzentzeko, ohartaraziz ez bazituzten bidaltzen eskatutako agiriak eten egingo zela administrazio isiltasuna zenbatzen hasteko epea.

Halaber, zuzen izapidetu da ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura, zeinaren behin betiko txostena 2011ko uztailearen 20koa baita.

Bosgarrena.- Ondoren, Artziniegako Udalak, aldundian 2011ko urriaren 10ean sartutako idazki baten bidez, espedientea ebazteko epea zenbatzen hastea eteteko eskatu zuen.

Seigarrena.- Hirigintza Zerbitzuak eta Artziniegako Udalak hainbat bilera egin ondoren, agiriak zenbait zehaztaperen jaso ditu, nola materialak hala formalak, halaxe ziurtatzen baitu 2012ko otsailaren 27an planari berriz ere behin-behineko onarpena eman izanari buruzko egiaztagiria.

Zazpigarrena.- Udalak, 2012ko apirilaren 26an, aldundiak eskatutako agiriak bidali zituen, Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari buruzko espedientea onar dadin.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Artziniegako eta Erretes Tudelako Birgaitze Integratuko Plan Berezia da agiri hau.

Funtsean bat datoz erreferentziako eremua eta Artziniegako herrigune historikoa monumentu multzoaren kategoriarekin kultura ondasun kalifikatzen duen apirilaren 16ko 82/1996 Dekretuak mugatutakoa.

Ekainaren 8ko 244/1999 Dekretuaren bidez, aldatu egin zen Artziniegako herrigune historikoa monumentu multzoaren kategoriarekin kultura ondasun kalifikatzen duen dekretua.

Halaber, otsailaren 3ko 24/2009 Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaion Artziniegako herrigune historikoa monumentu multzoaren kategoriarekin kultura ondasun kalifikatu zuen dekretuaren bigarren aldaketari, eta bere babes araubidea ezarri zen.

14,37mt al punto más cercano de la línea de encauzamiento del arroyo La Torca. Todo ello según plano B4.

(*) El retiro de 24m es susceptible de modificación, previa autorización expresa de la empresa propietaria y gestora de la línea (ADIF).

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4571

ORDEN FORAL 287/2012, de 6 de junio, de aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico del municipio de Artziniega y Retes de Tudela.

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 3 de junio de 2010 el Ayuntamiento de Artziniega acordó aprobar inicialmente el expediente de Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Artziniega y Retes de Tudela, así como someter el mismo a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOTHA núm. 64, de 11 de junio de 2010, en el periódico DEIA de 12 de junio de 2010, en el periódico EL CORREO de 13 de junio de 2010 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- En fecha 25 de junio de 2010, el Ayuntamiento solicitó el pertinente informe al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, el cual lo emitió en fecha 13 de octubre de 2010.

Tercero.- Durante el periodo de información pública, fueron presentadas cinco alegaciones, procediendo el Pleno del Ayuntamiento, en sesión del día 5 de mayo de 2011 a aprobar provisionalmente el Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico.

Cuarto.- Remitido el expediente a la Diputación y no encontrándose completo en su contenido material, el Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, en fecha 3 de octubre de 2011, se dirigió al Ayuntamiento solicitando la subsanación de las deficiencias detectadas, comunicando que, en tanto no fuera remitida la documentación solicitada se suspendería el cómputo del plazo del silencio administrativo.

Asimismo, se ha tramitado correctamente el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, cuyo informe definitivo es de fecha 20 de julio de 2011.

Quinto.- Posteriormente, el Ayuntamiento de Artziniega mediante escrito de entrada en Diputación de fecha 10 de octubre de 2011, solicita la suspensión del cómputo del plazo para la resolución del expediente.

Sexto.- Tras reuniones sucesivas entre el Servicio de Urbanismo y el Ayuntamiento de Artziniega, el documento ha recogido algunas determinaciones, tanto de carácter material como formal, tal y como se recoge en la certificación de la nueva aprobación provisional de fecha 27 de febrero de 2012.

Séptimo.- El Ayuntamiento, el día 26 de abril de 2012 ha remitido la documentación requerida, a fin de que sea aprobado el expediente de Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente documento constituye el Plan Especial de Rehabilitación Integrada de Artziniega y Retes de Tudela.

El ámbito de referencia coincide básicamente con el ámbito delimitado por el Decreto 82/1996, de 16 de abril, por el que se califica como Bien Cultural, el Casco Histórico de Artziniega con la categoría de Conjunto Monumental.

Mediante Decreto 244/1999, de 8 de junio, se modificó el Decreto por el que se calificó el Casco Histórico de Artziniega como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental.

Asimismo, por Decreto 24/2009, de 3 de febrero, se aprobó la 2ª modificación del Decreto por el que se califica como Bien Cultural el Casco Histórico de Artziniega, con la categoría de Conjunto Monumental y se fija su régimen de protección.